

## Beskoitze nun kokatzen da?:

Beskoitze Lapurdiko probintzian da.  
Herria Baionatik hamabost bat kilometrotan da.



## Beskoitzeko hautetsiak

Deitura	izenburua
AYENSA	Fabienne
JOCOU	Pascal
LAGRENNE	Annie

ELIZAGOIBEN	Patrick
ERRECAJAT	Mado
CHAULETAS	Serge
BAGNERISS	Sophie
DUHAU JONATHAN	Jonathan
LOUIT SOPHIE	Sophie
ITHURBIDE	Eliane
ETCHEVERRY	Monique
MARCARIK	Olivier
DOYHAMBERE	Florence
ROUX JEAN-LOUIS	Jean-Louis
DELGUE PHILIPPE	Philippe
LARRAMENDI	Peio
DOYHENARD	Maryannick
LARREGUY	David
OSPITAL JEAN-MICHEL	Jean-Michel
LABROUCKE DASSÉ	Danielle
LAFITTE THIERRY	Thierry
BIZEAU CHRISTINE	Christine
LARROQUE	Jean-Baptiste

## Historia pixka bat

BESKOITZE, erdi arotik ezagutuak (bainan segurki zaharragoak) diren bi bide zaharren elkargunean kokatua da.

Batek, mendebaldetik ekialdera, BAIONA uzten zuen « mocoron portalean », gaztelu berrian dirauen harresidun atea, BIDAXUNE elkartzeko.

Besteak, iparraldetik hegoaldera, AHURTIko ibai portua HAZPARNERi juntatzen zion.

BESKOITZE lehen aldikotz izendatua da 1249an, baina segurki zaharragoa da. Etxe batzu aipatuak dira 13. mendean geroztik, idatzietan.

---

BESKOITZE izenak, zaila den toponimia arloan, bi erranahi ukan litzake:

- BERAISCORTZ 1249an, berar-itz-koitz, « belar ainitz heldu den gailurra »
- Edo BERASKOITZ(A), berasko/belasko-ren eremua, hots belatzarena.

1331an, Inghaterrako erregeak, AKITANIAKO duke zenak, Raymond DURAND-i justizia apal eta garaia eskaini zion BESKOITZE, BARDOZE eta AHURTIko parropien gain. Emakida hau eskuz aldatu zen askoz berantago, GRAMONT familiari utziz. Haatik, BESKOITZE fite berriz itzuli zen LAPURDIko auzitegiaren menpera.

BESKOITZERen historia hobeki ezagutua da Frantses iraultza garaian (1793an, iraultzaileek « HIRIBERRY » izendatzen dute). Naturalki, parropi zatitua izan zen alde eta kontra ziren apezten arteko kalapitarengatik .

ERRETORAENA etxea, gotorlekua izengoitia zuena, luzaz DELISSALDE familiaren egoitza izan zen (hainbat ordezkari eragin haundia ukan dute LAPURDIko bizian 18 eta 19.mendean).

URGAZIETA herrixka parrokiari juntatu zaio 1832an: URGAZIETA luzaz eskualdeko industria garrantzitsuenetarikoa zen (20km ko hodi batek lotzen zuen MIARRITZEko ur bero gazieri).

BESKOITZE pertsonai ospetsuak aterbetu zituen : BESKOITZEKO gizon haundia Joanes LEIZARRAGA da, apez eta jakintsua, 1506an sortua. Jeanne D'ALBRETren manupean, testametu berriaren euskarazko itzulpenaren kargua ukan zuen, eta beste erligiozko liburu batzu ere itzuli zituen.

BESKOITZEko beste seme bat, 19.mendekoa, DOURISBOURE apezka, 1825an sortu zen misionesta, 1850an joan zen « Ba-hnar »-en ebanjelizatzerara COCHINCHINE aldera, seminario haundiko nagusia bihurtuz. Hiltzean, ikerketa bat utzi zuen, « Bahnar deitu salbaiak ». Biek haien ekarpena eskaini diote euskal eta mundu mailako kulturari.

Gaur egun, BESKOITZEK gomitatzen zaitu bere elizaren deskubritzera, haren galeriak, 1860 eta 1864 urteen artean eraikiak, bere etxalde ederrak, bere jaun etxeak eta bere ondare tipia.